




haurtzaro bakoitzarentzat




UDAL ETA FORU
HAUTESKUNDEAK 2023

HAUTESKUNDE HAUETAN HAURRAK DIRA GARAILE

Haur eta nerabeentzako programa bat

UNICEF Euskal Herriko Batzordea



HAUR ETA NERABEENTZAKO PROGRAMA BAT

2023ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeekin hasten den ziklo politiko eta legegileak aukera ematen du haurrak eta nerabeak erabakien erdigunean kokatzeko. Tokiko erakundeek, haur eta nerabeengandik hurbilen dauden administrazioak

diren aldetik, erantzukizuna dute haien eskubideak zaintzeko eta haien bizikidetzarako guneak eta zerbitzuetarako sarbidea babestuko dituzten lurralde bihurtzeko, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sustatu eta betetzeko helburuz.

Zergatik egon behar dute eta aintzat hartuak izan behar dira haur eta nerabeak hauteskunde-programetan?

1. Euskal Autonomi Erkideko biztanleriaren % 16,5 direlako.

2. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenetik eratorritako betebeharrak izateaz gain, haurrak aintzat hartzeak toki-mailako epe ertain eta luzerako ikuspegia erakusten duelako eta bat egiten duelako herrialdeek nazioartean erronka globalei aurre egiteko hornitu dituzten ibilbide-orriekin, besteak beste, Garapen Jasangarriko 2030 Agendarekin, Hiri Agenda Berriarekin edo Europako Haur Bermearekin.

3. Haurrengan inbertitzea aukera errentagarria delako ekonomikoki, herritar guztiei ekartzen dizkienak onurak: garapen ekonomiko eta

soziala sustatzen ditu, produktibitatea, hazkunde ekonomikoa eta gizarte-kohesioaren mailak handitzean.

4. Kalteberagoak izan daitezkeelako pobreziaren, indarkeriaren eta esplotazioaren aurrean.

5. Behar diren politikak eta inbertsioak garaiz garatzeak murriztu egiten dituelako haien eskubideetan gerta daitezkeen urraketak eta, ondorioz, aurrezpen ekonomiko eta soziala eragiten du.

6. Eskubideen titularrak direlako eta eskubide horiek betetzeak legeak eta politika publikoak hobetzeko beharra dakarrelako.

7. Entzunak izateko eta dagozkien gai guztietan parte hartzeko eskubidea dutelako. Parte-hartzea, eskubide bat ez ezik, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren printzipio gidari bat da ere.


8. Belaunaldien arteko elkartasunagatik: printzipio horretan oinarritutako zerbitzuen eta gizarte-babesaren sistema publikoek haurrei eta haurrak dituzten familiei ere begiratu behar dietelako, justizia- eta jasangarritasun-arrazoiengatik.



UNICEF Euskal Herriko Batzordetik, udal-hauteskundeetara aurkezten diren erakunde politikoei 12 proposamen aurkezten dizkiegu, 5 ardatz estrategikotan bilduta, eta espero dugu kontuan hartuak izatea zuen hauteskunde-programetan. Horietako bakoitza lehentasunezkoztat jotzen dugu haurren eta nerabeen bizitza eta ongizatea hobetzeko, tokiko

eremuan dituzten eskubideak betetzeko helburuz. Proposamen hauen edukian **UNICEF Espainiako Aholkularitza Taldeak parte hartu eta haiekin batera baliozkotu da**. Taldea 12 eta 20 urte bitarteko neska-mutilek osatzen dute. Horrela, dokumentuak haien ahotsak, kezak eta iritziak jasotzen ditu ardatz estrategiko bakoitzerako.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK



HAUR ETA NERABE ORO AINTZAT HARTU, ERRESPETATU ETA ZUZEN TRATATZEN DA BEREN KOMUNITATE BARRUAN



Hiriak, herriak, kaleak, auzoak, plazak, parkeak, ikastetxeak... haurrak eta nerabeak hazi, erlazionatu, ikasi eta beren eskudieak erabiltzen dituzten

leku fisikoak dira. Tokiko eremuak aukera-gune izan daitezke eta izan behar dute haientzat guztientzat, eta saihestu egin behar da desberdintasun-faktore bihur daitezen, haurren eta nerabeen artean bereziki kaltegarriak diren ondorioak ekar ditzakeelako. Tokiko eremua (lurraldea, zerbitzuak, azpiegiturak, etab.) eta bertan bizi diren esperientziak elementu erabakigarriak dira bere

garapenean eta, beraz, beren beharrak eta eskubideak kontuan hartuta formulatu behar dira.

Tokiko erakundeek zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboengan jarri behar dute arreta, ekitate eta justizia sozialeko auzi batengatik ez ezik, desberdintasunen aurka eta gizarte-kohesioaren alde borrokatzeko funtsezko estrategia gisa ere.

Haur eta nerabeei eragiten dieten ekitate ezari azkena emateko inbertsioek dute itzulerarik handiena ongizate-adierazleen hobekuntzan.

PROPOSAMENAK

1 Guztientzat, eskubide berak. Tokiko erakundeak gizartean inklusiboak izateko ekintzak abiaraztea, haurren eta nerabeen gaitasunak bultzatzen, diskriminazioaren aurka —soziala, ekonomikoa edo generokoa— borroka egin dezaten, eta beren ahalmen guztia lortzeko aukera eman diezaieten, haien adina, sexua, gaitasun fisikoak edo mentalak, jatorria edo egoera ekonomikoa alde batera utzita, besteak beste.

Zehaztu egin behar dira haurrok jasaten ditugun diskriminazioak.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

2 Eskubide-berdintasuna haurren artean. Genero-desberdintasunari buruzko sentsibilizazio-, detekzio-, prebentzio- eta arreta-programak garatzen dituzten baliabideak areagotzea, eta familian, eskolan eta gizartean genero-indarkeria egoeretan bizi diren haurrek eta nerabeek jasotzen duten arreta areagotzeko tresnak ezartzea.

Genero-desberdintasunak familia-ingurunea gainditzan du, haurren hezkuntza- eta gizarte-eremuan ere gertatzen baita.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

3 Haurrak mugimenduan. Mugimenduan dauden hurrei, haur eta nerabe errefuxiatuei eta salerosketaren biktima direnei zuzendutako erantzuna, arreta, babesa eta inklusioa emateko mekanismoak ezartzea eta indartzea, betiere haien interes gorena zaintze aldera beste eragile batzuekin koordinatuta, eta familiek oinarrizko zerbitzuetarako sarbidea dutela bermatuz, oztoporik gabe errolatzea bezalako neurrien bidez.

Tokiko gizartea sentsibilizatzeko/kontzientziatzeko programak sustatzea, haur migratzaileen/errefuxiatuen egoeraren berri emateko, haien bizitzeko enpatia sentitu eta haien harrera errazagoa izan dadin.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

HAUR ETA NERABE OROREN AHOTSAK, PREMIAK ETA LEHENTASUNAK KONTUAN HARTZEN DIRA HAIENGAN ERAGINA DUTEN ERABAKI GUZTIETAN



Tokiko erakundeak, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa diren aldetik, lehengo kate-maila dira haurrek eta nerabeek ezagutzen duten Estatuko antolaketa politikoan. Hala, tokiko erakundeetatik espero dute beren eskaera eta kezkei erantzutea araudietatik, politika publikoetatik eta aurrekontuetatik. Azken urteotan, haur eta nerabeek parte hartzeko guneek gora egin dute pixkanaka estatu eta autonomi erkidego mailan, baina, bereziki, tokiko eremuan. Haurren Hiri Lagunak ekimenak Espainiako 342 tokiko erakundek beren eskumen-eremuan haurrek parte hartzeko organoak izatea bultzatu du. Parte hartzeko gune horiek tresnetako bat dira, eta haien bidez bermatzen dute tokiko erakundeek haurrei entzuteko eta haien iritzia behar bezala kontuan hartzeko eskubidea, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak aitortua. Haurren parte-hartzea, eskubide bat ez ezik, Hitzarmenaren printzipio gidarietako bat da ere eta, beraz, bertan aitortzen diren eskubide guztiak haurrek parte hartzeko duten eskubidearen argitan interpretatu behar dira.

Haurrek tokiko eremuan parte hartzeak iritzi bat izatea baino gehiago izan behar du, eta haurrek eta

nerabeek beren bizitzari eragiten dioten erabakietan eta gaietan informatuta eta inplikaturik egoteko eta eragina izateko duten eskubidea jaso behar du, eskubide osoko herritarrek direnez gero. Parte-hartzea haurren garapenerako funtsezko faktorea da, eta babes-, autonomia-, erresilientzia- eta komunikazio-trebetasunak sustatzen ditu, pentsamendu kritikoa, sormena edo konpromisoa eta erantzukizuna bezalako balioak sustatzeaz gain. Haurren parte-hartzea, halaber, gobernantzarako eta gaitasun demokratikorako mekanismo bat da, haurrek eta nerabeek beren komunitateetan rol aktiboa eta erabilgarria izan dezaten eta aldaketarako gizarte-eragile gisa onartuak direla ikus dezaten. Era berean, erabakiak hartzerakoan haien parte hartzea ezinbesteko baldintza da erakundeetan haurren eskubideen ikuspegia behar bezala txertatzeko, baita ezinbesteko urratsa ere kolektibo horren aurrean aintzatespen eta ikuspegi sozialean aurrera egiteko.

Haurren parte-hartzea tokiko eremuan sustatuz, haurren eta nerabeen oinarritzko eskubide bat sustatzeaz gain, egungo eta etorkizuneko gizarte bidezkoagoak eta berdinzaleagoak eraikitzea lortzen dugu.

PROPOSAMENAK

4 Haurrei entzuten. Haurren eta nerabeen parte-hartze estrategikoa txertatzea haurren eta nerabeen tokiko politiken prestaketan, jarraipenean eta ebaluazioan. Horretarako, organo egonkorak sortzea bultzatuko da, baliabideak izango dituztenak eta modu iraunkor batean bideratuko dutenak haurren eta nerabeen parte-hartzea. Tokiko egitura guztiekin koordinatzea, espazio horien independentzia errespetatuz eta haur eta nerabeen eta tokiko gobernuaren artean kontuak emateko mekanismoak ziurtatuz.

Parte hartzeko kalitatezko guneak nahi ditugu, non haurrei eta nerabeei benetan entzuten zaiela ikusten dugun.

Kontua ez da partaidetza-organok sortzea, funtzionatzen dutela eta mantentzen direla ziurtatzea baizik.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

HAUR ETA NERABE GUZTIEK DUTE SARBIDEA KALITATEZKO OINARRIZKO ZERBITZUETARA



EAEEn, %28, 101.423 haur eta nerabe bizi dira pobrezia edo gizarte-bazterketako arriskuan (INE, 2021eko Bizi Baldintzei buruzko Inkesta, autonomia-erkidegoko

atalasearen arabera). Datu horrek 2020-tik gora egin ditu %2,1 puntu. Estatuko atalaseari dagokionez, EAE-ko zifra %20,8koa da, honek suposatzen ditu 12,2 puntu gutxiago estatuko zifrarekin alderatuta (%33), baina, beste alde batetik, 4,9 puntuko igoera azaltzen du 2020arekin alderatzen badugu. Euskadin pobrezia edo gizarte-bazterketako arriskuan bizi diren haurren kopuruak biztanleria osoarena baino handiagoa izaten jarraitzen du. Haurtzaroko pobrezia, ongizatea, garapen kognitiboa eta hezkuntza-mailaren artean lotura dago, eta helduaroko bizi-baldintzei eta pobrezia iragiten die.

Egoera horrek ez die berdin eragiten haur guztiei eta haien familiei, pobrezia larria pairatzeko edo gizarte-bazterkeria jasateko probabilitatea testuinguru sozioekonomikoaren, laboralaren edo geografikoaren arabera baita. Badakigu, gainera, pobrezia edo bazterkeria jasateko arriskua zuzenean lotuta dagoela haurrak bizi diren tokiarekin, auzoarekin, inguruko hiri- edo landa-eremuarekin, eta kalitateko oinarrizko zerbitzuetara sarbidea izateko aukerekin. Hori dela eta, funtsezkoa da administrazio guztiek esku hartzea eta koordinatzea, herritarren artean, batez ere haurren artean, gizarte- eta ekonomia-kohezioa sortuko duten neurri zuzentzaileak har daitezten.

Haurren eta nerabeen bizi-ohiturak, neurri handi batean, inguruneak eta sarbidea duten zerbitzuek zehazten dituzte. Tokiko erakundeek funtsezko rola

betetzen dute haurtzaroan bizitza aktiboa, elikadura osasungarria, osasun fisikoa, kalitatezko hezkuntza, kirola, jokoa eta aisialdia sustatzen dituzten guneak eratzean eta zerbitzuak ematean.

Hala ere, haurren osasun fisikoa sustatzen duten zerbitzuak ematea ez da nahikoa osasunaren ikuskera integral batetik abiatzen bagara. Izan ere, COVID-19aren pandemiak osasun mental eta emozionalako zerbitzuak indartzeko premia utzi du agerian. Ildo horretan, tokiko erakundeek prebentzio-lanaren aldeko apustua egin behar dute, haurrei eta nerabeei beren ongizate emozionalerako beharrezkoak diren tresnak eskuratzen laguntzeko eta haur eta nerabeentzat bereziki kaltegarriak diren jokabideak (eskola-jazarpenera, ziberjazarpenera eta beste indarkeria mota batzuk) saihesteko ekintzak abian jartzearen alde egiteko.

Ez dugu ahaztu behar, gainera, haurtzaroko eta nerabearoko harreman-guneek mundu analogikoa gainditzten dutela eta translazio zuzena dutela ingurune digitalean. Berriz ere, COVID-19aren pandemiak agerian utzi ditu eten digitala eta familia, haur eta nerabe ugari dituzten zailtasunak tresna digitalerako sarbidearekin, hezkuntzarako eskubidearekin eta berdinen arteko harreman-gaitasunarekin jarraitzea errazteko balio dutela kontuan hartuta. Hala ere, kanal eta gailu digitalerako sarbide horrekin batera, teknologien erabilera egoki eta seguruari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-lana egin behar da, teknologia horiekin lotutako arrisku potentzialekiko esposizioa murrizteko funtsezko estrategia gisa.

PROPOSAMENAK

5

6

7

8

hurrengo orrialdean >>>



PROPOSAMENAK

5 Pobreziari tokiko eremutik aurre egitea. Tokiko eremuan haur eta nerabeei berariaz zuzendutako neurriak eta baliabideak edukitzea, haurren pobreziari aurre egiteko prestazioak eta gizarte-zerbitzuak prebentziozko ikuspegi unibertsal batekin diseinatuta, eta betiere Europako Haur Bermearen eta Estatuko ekintza-planaren lehentasunen barruan: egoera zaurgarrienetan haurrak edo nerabeak ardurapean dituzten familiei diru-laguntzak ematea, oztoporik jarri gabe eta modu planifikatu batean; tokiko eremutik etxebizitza duina izateko eskubidea ahalbidetzea eta etxeko funtsezko hornidurak mantendu ahal izatea.

6 Hezkuntza haur guztientzat. Tokiko eremutik abiatuta hezkuntza indartzeko politikak diseinatzea, beken eta laguntza-programen bidez kalitatezko hezkuntzarako sarbide zuzena eta eraginkorra bermatzeko helburuz, batez ere egoera zaurgarrian dauden haurrentzat, aukera-berdintasuna eta inklusioa erraztearren. Gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-jardueretarako sarbide zuzena bermatzea.

Baliabideekin indartzea, behar duten haurrek eskola-laguntza izan dezaten.

Unibertsitatera joan nahi ez duten neska-mutilei informazioa, beste aukera batzuk eta orientazio-ikastaroak eskaintzea..... "Zenbat eta informazio gehiago izan, orduan eta hobeto aukeratu ahal izango dugu."

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

7 Ingurune digitalaren erabilera egokia. Haur eta nerabe guztiei teknologietarako sarbidea eta erabilera egokia ziurtatzea, ingurune digitalean eskubide guztiez gozatzeko beharrezko neurriak hartuz.

Ikastetxeak ikasleek erabil dezaketen ekipamendu teknologiko gehiagorekin hornitzea, eta udalerriko haur guztientzako konektibitatea ziurtatzea.

Teknologien kalitatea hobetzea eta eten digitalaren aurka borrokatzea, konfinamenduan agerian geratu den arazoa, alegia.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

8 Osasunarekin konprometituak. Haurtzaroan eta nerabezaroan osasun fisiko eta mentalaren arloko prebentzio-mekanismo integralak sustatzea, ongizate fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzeko.

Kaleko jolasa eta kirola sustatu behar dira eta "bideojokoetan jolasteko etxean geratzeari" azkena eman.

Osasun mentala ikusaraztea: tabu bat izaten jarraitzen du, estigmak hautsi behar ditugu.

Dieta osasungarriak sustatzea.

Elikadura-portaeraren nahasmenduei buruz: gorputzak desberdinak direla kontzientziatzeko eta informatzeko kanpainak eta programak egitea, eta nahasmendu horiek prebenitzeko neurriak ezartzea.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia

HAUR ETA NERABE GUZTIAK BIZI DIRA INGURUNE SEGURU ETA GARBIETAN



Haurrek eta nerabeek beren osasuna babestuko duten gune fisiko eta erlazio-naletan hazi behar dute, garapen osoa sustatzeko eta osotasun fisikoa eta emozionala zaintzeko.

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko Lege Organikoaren 3.m) artikulua-aren ara-bera, “*Ingurune segurutzat joko da haurren eskubi-deak errespetatzen dituena eta babes-ingurune fisiko, psikologiko eta soziala sustatzen duena, ingu-rune digitala barne*.” Eta babes-gune batek, gainera, haurrek eta nerabeek laguntza behar dutenean es-katu ahal izatea eskatzen du, baita arriskuen kont-zientzia eta ardura handiagoa duten pertsona helduak ondoan izatea ere.

Era berean, tokiko espazioen konfigurazioak funt-sezko zeregina du haurren ongizatean. Tokiko era-kundeek bertako ingurunea antolatzeko politikak sustatu behar dituzte, ingurumen-kalitatea, hiri-me-

tabolismoa eta haurrek eta nerabeek erabiltzen di-tuzten espazioak hobetzeko, horrela, jolasteko, mu-gitzeko, gizartean parte hartzeko eta abarrerako haiek dituzten premietara egokitu ahal izan daitezen eta, benetan “babes-inguruneak” izatea lortzeko.

Haurrak eta nerabeak bereziki zaurgarriak dira klima-alaketaren eta atmosferaren kutsaduraren ondo-rioekiko. Klima-alaketak eragin handiagoa du haien osasunean, eta biztanleriaren beste tarte batzuetan baino gehiago eragiten die.

Klima-alaketak osasunean, hezkuntzan, ongizatean eta elikaduran dituen inpaktuen kudeaketa egokiare-kin zerikusia duten neurriak garatu behar dira, eko-nomia-, gizarte-, geografia-, ingurumen-, politika- eta kultura-ezaugarrietara egokituta, egungo eta etorki-zuneko ondorioen aurrean gizartearen eta, bereziki, haur eta nerabeen erresilientzia handitzeko helbu-ruz.

PROPOSAMENAK **9** **10** hurrengo orrialdean >>>



PROPOSAMENAK

9 Haurrak edozein indarkeria motaren aurrean babestea. Babes-inguruneak sortzeko mekanismoak eta neurriak abiaraztea, haurrak eta nerabeak arrisku-egoeretatik eta indarkeria-egoeretatik babestuko direla bermatzeko behar diren baliabideak eta gaitasunak emanez, prebentzioaren ikuspegitik eta eremu desberdinekin koordinatuta, betiere Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoan ezarritako eskumenen esparruan.

10 Ingurune seguruak eta jasangarriak. Tokiko politiketarik, hurrek eta nerabeek ingurumen garbi eta osasungarri batez gozatzeko duten eskubidea bultzatzea. Horretarako, ekintzak aurrera eramatea hiri-eraldaketa haurren ikuspegitik sustatzeko, alderdi hauek hobetzea xedetzat hartuta: ingurumen-kalitatea (airearen kutsadura, zarata, bero-uhartearen efektua, etab.), hiri-metabolismoa (lekualdaketa, ura, energia, saneamendu-sareak, etab.), gune sozialen kalitatea (espazio publikoak, ekipamenduak, etxebizitza, lantokiak, etab.) eta aisialdi eta kultura arduratsuaz gozatzeko eskubidea, ingurune seguruak, eskuragarriak eta irisgarriak sustatuz.


Kaleak berriz diseinatu behar dira, pertsonen leku gehiago izan dezaten: espaloi zabalagoak, zuhaitz gehiago, eserleku gehiago, bizikleta gehiago eta auto gutxiago. Kale jasangarriagoak.

Garraio publiko gehiago eta hobe, energia garbi eta jasangarriak erabiliko dituen eta merkeagoa izango dena pertsona guztiek erabili ahal izateko.

Haur guztiek berdegunez gozatzeko aukera izan dezaten eta ingurune naturalak bisitatu ahal izan ditzaten lortu behar da, oso garrantzitsua baita haien osasunerako.

Helduak ingurumena zaintzeaz eta birziklatzeaz kontzientziazatzea. Neska-mutilak sentsibilizatuta gaude ikastetxeetan, baina helduak ez.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia



KONPROMISO GLOBALA HAUR ETA NERABEEKIKO ETA GOBERNANTZA-MEKANISMOAK HAURREN TOKIKO POLITIKAN



Haurrak eta nerabeak tokiko politiken erdigunean jartzeak lehentasunetako bat izan behar du, baita haurren eskubideak defendatzea eta sustatzea


ere, Garapenerako Laguntza Ofizialaren esparruan, baliabideak areagotuz eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin (HEH) eta 2030 Agendarekin tokiko konpromisoa indartuz.

Garapen jasangarrirako 2030 Agendak, inor atzean ez uzteko kontsignapean, ekitatea eta jasangarritasuna bermatzeko erronka bikoitza aitortzen du, eta haur guztien garapen eta babesaren aldeko konpromisoa indartzeko funtsezko tresna da.

Haurrei eta nerabeei zuzendutako arretan fokua jarriko duen garapenerako lankidetzaren alde egitea inoiz baino beharrezkoagoa da orain. Azkenaldiko krisi ugari eta, zehatzago, COVID-19ak eragindakoak, ekarri dute mundu osoko haurren premia oinarritzkoenak modu kezkagarri batean handitzea. Nazioarteko lankidetzarako tresnen esparruan haurrei eta nerabeei laguntzeko politikak lehentasuna izan beharko luke tokiko eremuan.

Tokiko administrazioek Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena betetzen jarraitu ahal izateko, eskubideen ikuspegia txertatu behar da beren ekintza politiko osoan. Administrazioek hartutako erabakiek, era batera zein bestera, eragina dute haurrengan eta nerabeengan. Horregatik, ezinbestekoa da haurrek eta nerabeek gai sektorial izateari uztea —arlotan eta sail batzuen eskumena baino ez baita— eta zeharka eta modu integral batean diseinatu, ezarri eta ebaluatutako politika bat izan dadin lortzea, haurrak eta nerabeak agenda politiko eta sozialaren erdigunean kokatuz eta, horretarako, tokiko eragile guztiak inplikatur.

Haurren lagun den gobernantza horrek Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenari dagokionez tokiko erakundeek dituzten betebeharrak aplikatzen jarrai dezan, beharrezkoa da une bakoitzean haurren eta nerabeen errealitatea zein den jakitea, horrela, estrategia propio bat diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko, eskubideen ikuspegiarekin, emaitzetara bideratua eta hura gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitua.



PROPOSAMENAK


11 Haurren aldeko tokiko lankidetzak. Munduko haurren eskubideekin eta garapen jasangarriarekin konprometitutako tokiko ekintza sustatzea, nazioarteko lankidetzak deszentralizaturako baliabideak emanez.

12 Haurren Lagun den Gobernantza. Epe luzerako estrategia bat ezartzea, haurren bizikaltatean eta ongizatean aldaketak lortzeko. Horretarako, eskubideen ikuspegia duten plangintza-tresnak sortu behar dira. Tresna horiekin batera, aurrekontuak haurren ikuspegitik aztertzeko mekanismoak eta sailen arteko koordinazioa ere behar dira, eta mekanismo horien barruan sartuko dira datuen bilketa, plangintza, jarraipena —adierazle-sistema baten bidez—, ezarpenerako aurrekontua eta haurren eta nerabeen ongizatearen gaineko inpaktuaren ebaluazioa.

Haurren tokiko estrategiek haurren eta nerabeen ahotsa jaso behar dute.

Haurren tokiko kontseiluek lotura eta harremana izan behar dute autonomia-erkidegoan sustatzen diren partaidetza-kontseiluekin.

Aholkularitza Taldea UNICEF Espainia



KONTUAN IZAN...

Gure 12 proposamenak biltzeaz gain, azter ezazu zure hauteskunde-programa galdera hauen bitartez

HAURREN ETA NERABEEN INKLUSIOA

■ Hurrek eta nerabeek maila garrantzitsu bat dute hauteskunde-programan? Haurrak eta nerabeak eta beren eskubideak berariaz aipatzen dira programaren sarreran edo laburpen exekutiboan?

■ Programaren atal bat hurrei eta nerabeei eskaintzen zaie? Programaren aurkibidean jasota daude hurrei zuzendutako proposamenak, gizarteko talde edo sektore zabalei eragiten dieten beste politika batzuen —genero-politikak edo adinekoenak besteak beste— maila berean gutxienez?

■ Haurrak eta nerabeak eskubide osoko herritar gisa ageri dira eragiten dieten funtsezko politikan (hezkuntza, gizarte-babesa, babes juridikoa)? Seme-alaba, ikasle, erabiltzaile, adingabe, onuradun... gisa ez ezik, ageri dira haur eta nerabe gisa ere?

■ Ageri dira beste politika orokor/zeharkako batzuetan (hirigintza, berdintasuna, gazteria, kultura, gizarte-zerbitzuak, garapenerako lankidetzak, migrazioak, enplegua eta abar)? Haurrak eta nerabeak kontuan hartzen dira neurriak diseinatzerakoan haien eragina ez diren baina beren bizitzan, familietan eta ingurunean eragina duten politikan?

ESKUBIDEEN IKUSPEGIA ETA POLITIKEN ESPARRUA

■ Haurrak eta nerabeak hauteskunde-programan jasota ageri dira Hurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren eta beste oinarritzko erreferentzia batzuen ikuspegiaren arabera? Programek jasotzen dituzte Hurren aldeko Itun Autonomikoaren akordioak, baita Europako Haur Bermearen eta Hiri Agenda Berriaren lehentasunak ere?

■ Proposatutako neurriak garrantzizkoak dira hurren ongizaterako? Neurrietan haurtzaroaren ikuspegiari eta horrek hurren eta nerabeen ongizatean eta eskubideetan duen eraginari heldu zaie?

■ Aurkezten dira beharrezko aurrekontuaren/inbertsioaren zenbatespenarekin halakorik behar duten neurriak? Badago zenbatespenik eta konpromisorik neurriak ezartzeko beharrezko inbertsio publikoari buruz, neurrien eraginari buruz eta lortu nahi diren helburuei buruz?

HAURREN PARTAIDETZA

■ Programaren edukiak sustatzen du tokiko eremuan hurrek parte hartzeko guneak sortzea? Programa lantzerakoan zuzenean parte hartu dute hurrek? Edo, gutxienez, kontuan hartu dira beste iturri batzuetan (haur-erakundeak, inkestak, haur-topaketak, hurren udal-kontseiluak, etab.) jasotako haien iritziak?

■ Badago hauteskunde-programaren edo hurrei zuzendutako neurri espezifiko bertsiorik hurrei egokitua? Ulertu ahal izango lituzkete proposamenak eta haien gainean dituzten ondorioak?

EKITATEA

■ Arreta berezia jartzen da egoera ahulenean dauden haur eta nerabeengan, besteak beste gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenengan, desgaitasunen bat dutenengan, migratzaile eta errefuxiatuengan, babes-sisteman...? Badago haien eragina neurri espezifikorik?

